

Gaurkoz, irakurle, bikoakizu, zenbaki hau, Euskaltzaindiaren urrezko eztaiei gehienbat eskainia.

Asmatuko al du Euskaltzaindiak agerkari hau bere asmo eta ametsen neurriko bihurtzen!

Luis Villasante  
Euskaltzainburua

## URRE EZTAIEN KRONIKA

Euskaltzaindiak, bere sorreraren urre-eztaietara heltzean, beharrezkoa zuen oroitzapenez zerbait bereizgarri antolatzea, eta hala egin zuen.

Elkargoaren kondaira labur bat idatzi zan, zenbait periodistaren berri eskeari erantzunez egin zena; arrazoi honegatik egin zen erderaz eta *Bodas de oro de la Academia de la Lengua Vasca* izenez zenbait aldizkari eta egunkaritarara zabaldu, era berean gure *EUSKERA*-n ere. (1).

Iruñean, 1967-ko abenduan Manezaundi zenaren ohorez egin zen bilera hartan eskatu zen 1968-ko lehen bilera urre-eztaia planifikazioari buruz egitea. (2). Orduandik, 1968-1969-ko agiritan ikusiko dugun bezala, hasi ziren autolakizunak.

1968-ko urtarrilean Bilbon egin zen bilera, M. Lekuona euskaltzainburuak hitzaldi labur batekin iriki zuen (3), eta bilera honetan Oñatiko Unibersidadean azaroan Biltzar nagusi batzuk egitea

---

(1) EUSKERA, XIII (1968), 293-99 orr.

(2) EUSKERA, XIII (1968), 350 orr.

(3) Hitzalditxoc hau EUSKERA, XII (1967), 315-17 orrialdeetan argitaratu zen.

erabaki zen, eta bertarako gai bakarra aukeratu zen: Euskera idatzia-  
ren batasuna. Otsailaren 23-an Donostian egin zen batzarrean ontzat  
hartua izan zen gai hau erabiltzea urre-eztaietako Biltzar nagusian.

Denen iritzia zen gure euskara idatziaren batasuna behar-beha-  
rezkoa dugula hizkuntza biziko bada. Batasuna, Mitxelenak bere  
txostenaren sarreran zion bezala, guztiok amore emanez egin behar  
den gauza da.

Gainera, Euskaltzaindiak bere sorkundetik du bere eginkizu-  
netako bat, euskeraren batasuna, eta 1920-an egin zuen bere arau-  
diaren 6-garren artikulua lehen partean, hau dio: «a) ekingo du  
euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-  
-joskeraz ta idazkeraz al bait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-  
-irakurketan erabiltzeko.» (Azken araudian, 1954ko abuztuaren  
24-an onhartu zen araudian, 5-gn. artikulura pasatuta aurkituko  
dugu, ideia ber-bera). Beraz, aski beharturik Euskaltzaindiak aspal-  
diko urteetan utzia zuen gai hau berriz ikutu eta aztertu du. (4).

Bertarako txostenak gertatzeko batzorde bat izendatzen da: M.  
Lekuona, P. Lafitte, P. Larzabal, L. Akesolo, L. Basterretxea eta  
X. Garmendia jaunak, gutxienez euskalki bi ezagutzen dituztenen  
artean. Gero, apirileko bileran, aurreko agiria onhartu ondorean,  
L. Mitxelena izendatu zen batzorde honen buru, eta J. San Martin  
idazkari.

Batzordeak bere batzarrak eginez eta lanak gertatuala kontu  
emanez joan ziren ondoko bileretan, 1968 eta 1969-ko agiritan  
ikusiko dugunez.

1919-tik Euskaltzaindiko laguntzaile direnak ohorezko izenda-  
tzea erabaki zen, eta numeruko edo ohorezko lehendik zirenei ome-  
nezko zerbait eskaini. Hauen arteko genituen: M. Lekuona, I. Ló-  
pez-Mendizabal, R. Menéndez Pidal, O. de Apraiz, J. G. Ibargutxi  
eta G. Manterola jaunak. Eta, hauetarik, Menéndez Pidal jauna be-

---

(4) EUSKERA-ren lehen aleetan agertzen denez. Ikusi, batasunari buruzko  
bibliografia, XIII-gn. tomoan, 1146-48 orrialdeetan.

rehalaxe ohorezko izendatzea erabaki zen, besteak Oñatiko Biltzar nagusietarako utziaz. Hala egin zen. Ondoko orrietan argitaratzen dugu eskertuaz egin zigun gutuna.

Euskara idatziaren batasunari buruz, Euskaltzaindiaren asmoen lagungarri, Durangoko «Gerediaga» Elkartek euskal idazleen biltzarrera eratu zuen Ermuan, Ekainaren 28, 29 eta 30-erako, idazleen iritziak aztertzeko. Bilera hartako gaiak eta elkar-hizketak *Jakin* aldizkarian argitaratuak dira (5).

Urre-eztaien antolamendurako, beste batzorde eragile bat ere izendatu zen, agirietatik ikusiko dugunez, baina urteok politikaz oso nahasturik izan ziren, euskarak oztopu eta debekurik aski zuelarik, eta gure asmoetatik gehienak hor gelditu ziren bete gabe. Honela, maiatzeko bileran erabaki bezala, irailaren 26, 27, 28 eta 29-an Oñatin Biltzar nagusiak egitea, ezinezkoa bihurtu zen, Euskaltzaindiaren zoritxarrerako.

Abuztuko bileran, Gipuzkoako egoera ikusirik, ezepzio-legea bide, Euskara idatziari buruzko biltzarrak jaietatik banantzea erabaki zen, jaiak geroagorako utziaz, eta biltzarrak urrian Arantzazum egitea.

Arantzazuko bilera horietara idazle, maixu eta andereñoi ere dei egitea erabaki zen, eta hala bete zen. Era berean, joan nahi zuten euskaltzale guztiei eman zitzairen sarrera eskubidea, eta hitzaren eskubidea ere bai. Horrela bete ziren urriko hiru egunetan biltzarrak Arantzazum, M. Lekuona euskaltzainburu jauna bezala biltzarren buru zelarik. Eta, han bertan J. M. Satrustegi euskaltzaina izendatu zen moderadore. Txostenlariak hauek izan ziren: Manuel Lekuona, *Euskeraren batasuna*; S. Garmendia, *Deklinabideak*; A. Zatarain, *Euskerazko itz berriak*; L. Villasante, *Antziñako euskal hitzen formaz*; L. Mitxelena, *Ortografia* (eta ortografiatik aparte, zenbait iritzi orokor: batasun oinharriak, hitzen formaz, hitz berriak, morfologia eta joskerari buruz). Txosten edo ponentzia hauek alde zuzenetik multikopiaz zabaldu ziren. Biltzarren berri zehatzak, txostenok tartean direla, ikusi «Arantzazuko Biltzarrak» izenez *EUS-*

---

(5) JAKIN, 31-32 zenbakia (Maiatza-Urria, 1968).

KERA-n (6). Eta biltzarren ondorean jaso zen agiria (7) irakurri daiteke, batzar haien konklusio bezala. Zenbaki honetan berriz argitaratzen dugu, guztien jakingarri, 1970-ean uztailleko batzarrean berriz onhartu zenez.

Honela egin zen, Oñatin urre-eztai jairik behar bada ezingo zela ospatu usterik.

Oñatin egiteko ziren jaialdiak utzi behar izan zirenez gero (alde zurretik susmatu bezala), urteko azken bilera Nafarroan egiteko zen eta harako utzi ziren zenbait eginkizun berezi. Abanduaren 4-ean Nafarroako Foru Diputazionean bildurik, hara deituak ziren zenbait instituzioren artean *Real Academia de la Lengua*, *Institut d'Estudis Catalans*, Barcelona-ko *Omnium Cultural*, *Real Academia Gallega*, Valenciako *Lo Rat Penat* eta *Obra Cultural Balear*. Era berean Euskal Herriko beste zenbait elkarte. Biltzar ondorean ohorezko izendapenak egin ziren, arestian aipatu diran 1919-tik urgazle izendaturik zirenei; eta ohorezko euskaldun makila bana eman zitzaien bi euskaltzain numerukori eta lehendik ohorezkoa zen bati. Euskaltzaindiaren lehen urteetako berri gogoangarriak (8) eta I. López-Mendizabal-ek euskaltzale eta euskalari arrotzak gogoaraziaz. Eta Rikardo Arregik gazteen izenean bihozki erantzun zien. Arratsaldean katalan, valenciar eta gailegoekin bilera berezi bat egin zen, premiazko gauzetan elkar lotuko gaituen laguntza erakunde bat sortzeko: Herri Hizkuntzen Idazkaritza, Frederic Roda jauna buru dela, eta *Symposium de Linguas Hispánicas* antolatzeko lehen erabakiak hartu ziren.

1969-ko urtarrilaren 12-an Baionako Euskal Museoa egin zen bilera irikia. Bertako auzaphez eta Eskualtzale Biltzarraren burua bertan ziren eta agurrezko hitzak eskaini ziguten. Dassance jauna mintzatu ben Euskaltzaindiaren oroitzapenez.

1969-ko otsailaren 23-an Gasteizko bilera. Arabako Museoa. Arabako Foru Diputazionearen Consejo de Cultura-ko buruak eta *Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*-eko ordezkari-tza-

(6) EUSKERA, XIII (1968), 137-265 orr.

(7) EUSKERA, XIII (1968), 230 orr.

(8) Ikusi hitzalditxo hau EUSKERA-n, XIII (196?), 271-73 orr.

ko zuzendariak bertan zirelarik. Biltzar irikian, euskaltzainburuaren agurraren ondorean G. Arestiren hitzaldi laburra Pedro Barrutia eta bere antzerkiari buruz, eta ondorean L. Akesolo-rena Jose Paulo Ulibarri eta honen lanari buruz.

1969-ko uztailaren 10-ean Bizkaiko Diputazioean biltzarra. Aldez aurretik Diputazioko presidentea agurtu zen, eta Comisión de Cultura-ko buruak batzartuei agurrezko hitz batzuk eskaini zizkien. Ondorean, euskaltzainburuaren hitzaldi labur bat, eta Juan Ramón Urkijo mintzatu zen bere osaba Julio eta honen lanei buruz; Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat bezala eta Riev-en zuzendaritzan euskal kulturaren alde egin zuen lana agerrerez; eta era berean E. Erkiagak Azkue eta Euskaltzaindiaren sorrerari buruz. Sociedad Bilbainan bazkaltzen geundela heldu zitzaigun berri beltza; bilerara etorrela bidean ezbeharrez hil zela Rikardo Arregi lankidea. (G. B.).

1969-ko irailaren 21-ean Donostiako Diputazioan egin zen urre-eztaietako azken batzarra. Hileroko biltzarrari jarraitu dio biltzar irikiak, Gipuzkoa eta Donostiako agintariak buru direlarik. Euskaltzainburu eta zenbait agintariren agur hitzen ondotik idazkariak Euskaltzaindiaren sorrerako lehen bileran jaso zen agiria irakurri zuen (kronika honen ondoreko orrietan berriz argitaratzen dugu), ondorean literatura sariak banandu, eta azkenean beste hitzaldi labur hauek: L. Mitxelena, Luis de Eleizalde-ri buruz; A. Zugastik, Erramon Intzagarai-ri buruz; L. Villasantek, S. Altube-ri buruz eta J. Artek, Karmelo Etxagarai-ri buruz.

Honela bukatu ziren urre-eztaiak. Baina urtearen buruan, betiko eginkizunetatik aparte, beste zenbait antolamendu bereizi egin ziren. Hauen artean:

Educación y Ciencia-ko Ministro jaunari, *Libro Blanco* dela-koari adierazpenak egin, gutuna egin zitzaion 1969-ko apirilean.

Euskaltzaindiaren ordezkariak idiki ziren, lehendik Donostian egoanaz gain, Gasteizen eta Baionan. Eta, Euskaltzaindiaren Bilboko etxea berritu.

Estudianteen udarako euskara ikastaroak bere babespean hartu: neke askoren ondotik ahal bezala egin diren ikastaroak.

Euskaldunen alfabetatze kanpainak ugaritu.

Donostiako Unibersidadeko lege-ikasgoaren zuzendariei euskerazko irakaskintza jartzearen alde egin eta hortarako behar diren araberetarako laguntza eskaini.

«Gerediaga» Elkartek 1968-ko azaroaren 1, 2 eta 3-an antolatatu zuen euskal liburu eta diskoen feria bere babespean hartu.

Lan argitaratze bereziak bideratu eta bultzatu: Azkue-ren *Cancionero popular vasco* berriz argitaratzeko eraskinak gertatu; *Morfología Vasca* eta *Diccionario Vasco-Español-Francés* (tartean jabetasunezko hauziak izan baziren ere, berriz argitaratzeko antolamenak egin); *Aintziñako ipuiñak* izenez, haurrentzako irakurgai bezala, Euskalerrriaren Yakintza-tik hautatutako ipuin bilduma argitaratu; eta aspalditik agortua zen lan honen hirugarren tomoa argitaratu. EUSKERA zenbaki bereziak, XIII-garrena (1968) «Arantzazuko Biltzar-rrak», Gaur-en informeko *El vascuence en los actuales niños de Guipúzcoa*, eta gainerako zenbait berri; XIV-XV-garrena (1969-1970) *L'oeuvre poétique de Pierre Tapet-Etchahun* estudio bereziari eskainiz. Hoziez gainera, «Irakur sail»-i *Euskera Batasuna* izenez EUSKERA-tik aparteko edizio bat egiten utzi (9), eta F. Mendizabal-i *Euskaldunentzat gramatika euskeraz* liburuarentzat bere babesa eman.

Literatura sariketetan, urteroko «Lizardi» izeneko poesia saria hutsean gelditu zen, inor presentatzeke. «Xenpelar» izeneko bertso-paper sariak, 1968-koa Manuel Matxainek eraman zuen eta 1969-koa Kalonjek. 1968-ko «Txomin Agirre» nobela saria, urre-eztaiegatik 20.000 pezetakoa jarri zen, Bizkaiko Aurrezki Kutxarenari Euskaltzaindiak bere aldetik beste hamar milla gehitu ondorean, eta J. L. Alvarez Enparantxa-ri eman zitzaion bere *Elsa Scheelen* izeneko nobelagatik. 1969-ko «Toribio Alzaga» antzerki sariketa, arrazoi beragatik gehitua izan zen, baina bi sari jarriaz, beti bezala antzerki libreaz aparte haurrentzako antzerki sariketa batekin; maila librean A. Zubikaraik eraman zuen *Mendu-zabarrak* izeneko antzerkiakin eta haurrentzakoa biren artean berdindurik gelditu zen, Maria Lur-

(9) *Euskera Batasuna*, «Irakur sail»-ek gaiaren zabalkunderako argitaratu zuen bezala, gai bera, charrez, euskara ongi konprenitzen ez dutenen artean ere zabaldu dadin, Villasantek argitaratu du *Hacia la Lengua Literaria común*. Aránzazu - Oñate, 1970.

des Iriondoren *Martin Arotza* eta Estanislao Urruxolaren *Iñakitxoren altxorra*. Horiez gainera, beste sariketa berezi bat ere jarri zen Caja Laboral Popular-ek eskainitako 20.000 pezetakoa, *Kooperatibismoa eta arrantzalearen eragintza* gaiez eta Antonio Pérez Bilbaok irabazi zuena.

Gora behera guztiak, xehetasunez, ondoko agirietan aurkitzen dira.

Idazkariak

## ACTA DE LA PRIMERA SESION DE LA ACADEMIA

*Para cumplimentar el acuerdo tomado en el Primer Congreso de Estudios Vascos celebrado en Oñate (1918), para la creación de la Academia de la Lengua Vasca, dentro del plazo señalado por la Asamblea, se redactaron las bases para someterlas a las Diputaciones vascas. Las mismas fueron aprobadas, por la de Guipúzcoa el 11 de abril de 1919, por la de Alava el 2 de setiembre de 1919, por la de Navarra el 3 de setiembre de 1919 y por la de Vizcaya el 5 de octubre de 1919. Y las cuatro Diputaciones ordenaron a la Sociedad de Estudios Vascos para que cursaran convocatoria de reunión a las personas nombradas al efecto en el Congreso de Oñate, señores Azkue, Campión, Eleizalde y Urquijo, y a los representantes de diversas entidades culturales del país y a los directores de publicaciones euskéricas, según consta en EUSKERA, I (1920), n.º 1, páginas 46/48, y en Riev que se refiere en la misma cita.*

*En aquella reunión constitucional se levantó la presente acta:*

A las tres de la tarde del día 21 de setiembre de 1919, se reunieron en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa, previa citación hecha por la «Sociedad de Estudios Vascos», las personas á quienes, según el «Capítulo adicional» del proyecto elaborado por la ponencia que se designó en el Congreso de Oñate para organizar la Academia de la Lengua Vasca, correspondía la elección de los Académicos numerarios que habían de componerla. Asistían en tal